



TALLERES M. M. ECHEVERRIA: “Euskaraz ikasi duten ikasleei bidea errazten diegu, praktikak euskaraz egiteko aukera emanda”



Usurbilgo Talleres Mecanicos Manuel Echeverria enpresan aurten ere, urtero bezala, ikasle bat hartu dute praktikaldia egin dezan.

Buruntzaldeko udalen ekimenez, interbentzio bat jarri da martxan praktikaldi hori euskaraz izan zedin eta emaitzek argi azaltzen dute: hobetzeko txiki batzuk izan arren, praktikaldia euskaraz garatu da.

Bertako langileekin berriketan aritu gara gai honen inguruan

Ikasleak praktikak egin dituen langilea eta makina

Noiztik hartzen dituzue ikasleak zuen lantegian praktikak egiteko?

1990 urtetik aurrera hartu ditugu ikasleak praktiketan, beti Usurbilgo Lanbide Eskolatik

Ze urrats eman dituzue zuen enpresan praktikak euskaraz egiteko aukera posible izan dadin?

Baietz gurean! proiektuan parte hartzen hasi ginenetik euskararen inguruan pausoak ematen hasi ginen. Zenbait euskaratze lan egin ditugu: gure programa informatikoetan eta kalitate eta prebentzio arloko zenbait txosten euskaratzeko aukera izan dugu. Orain enpresan lan egiten dugun %90 euskaldunak gara, eta horrek ere laguntzen du.

Garrantzitsua iruditzen zaizue lan munduarekin lehenengo harremanean euskarak bere tokia izatea? Zergatik?

Euskaraz ikasi duten ikasleek aukera hori izatea garrantzitsua da. Gure kasuan hizkuntza nahiko teknikoa da eta praktiketan, ikasi duten hizkuntza berdinean lan egiteko aukera ematen bazaie, ikasleentzat errazagoa izan daiteke.

Bide horretan laguntzarik izan al duzue? Eragozpenik?

Usurbilgo udaletxetik diru laguntza jaso dugu **Baietz gurean!** programaren bidez, bestalde ez dugu inolako eragozpenik izan.

Ze mezu emango zenioke ikasleak praktiketan hartzen dituzten eskualdeko enpresei?

Pixkanaka- pixkanaka sar dezatela beraien eguneroko lanean eta harremanetan euskara datozen ikasleei aukera hori eskaintzeko

BAIETZ GUREAN! programa

NORK: Buruntzaldeko sei udalek (Lasarte- Oria, Hernani, Andoain, Astigarraga, Urnieta eta Usurbil)

NORENTZAT: eskualdeko enpresentzat

HELBURUA: euskararen normalizazioan urratsak ematen laguntzea

NOLA: doako aholkularitza eta diru- laguntza programa baten bitartez

Interesa izanez gero, jarri harremanetan zure udaleko euskara zerbitzuarekin edo baietzgurean.kontsultak@gmail.com helbidera mezu bat bidalita